

KONTSEILU ARAUTZAILEAN ALDAKETA

Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileko lehendakaritza aldatu da 2014. urtean. Abenduaren 9an Mendibilen egin zen Kontseiluak Iñaki Aretxabaleta lehendakari izendatzea onartu zuen, Juan Carlos Ercorecaren ordezkari. Urtarrilaren 9an Izendatze honek Eusko Jaurlaritzaren berrespena hartu zuen, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua den Arantza Tapiak sinatutako dekretuaren bidez

Lau urteko agintaldirako eratu zen 2013ko udaberrian Kontseilu Arautzailea, eta hauek dira, gaur egun, bertako kideak:

Lehendakaria: Iñaki Aretxabaleta Aurre, jauna

Lehendakariordea: José Ramón Calvo Valpuesta jauna

Upeltegien ordezkari batzordekideak

Arkaitz Larrazabal Durana, jauna

Miren Sorkunde Bikandi Lasa, andrea

Mahastizainen ordezkari batzordekideak:

Pablo González Uriarte, jauna

Unai Sulibarria Santibáñez, jauna

Agustín Olazabalaga Olaskoaga, jauna

Kontseilu Arautzaile berri honen lehentasuna, Bizkaiko Txakolinaren ekoizpen prozesu osoko kalitatearen kontrola ziurtatzea izango da. Helburu hau lortzeko, Kontseiluak prozedura tekniko guztiak hobetuko ditu, txakolinaren kalitatea eta jatorria bermatzeko eta Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deitura izenpean saltzen den txakolinaren sinesgarritasun osoa ziurtatzeko

PROMOZIO PLANA

Kontseilu Arautzaileak 2015 urtean Sustapen Plan bat garatzea erabaki du Bizkaiko Txakolinaren irudia kontsumitzaileen artean indartzeko. Horretarako, Bizkaiko

txakolinaren balioak zabalduko ditu, txakolinaren kontsumoa etxeetan eta jatetxeetan areagotzeko.

Sustapen Plan honen helburua txakolina kalitatezko ardoa dela erakustea da, gazte eta emakumeen artean bere kontsumoa zabalduz

Sustapen Plan hau urte osoan zehar garatuko da. Ostalaritzan aurkezpenak, dastaketak, beste erakunde batzuk antolatzen dituzten ekimenekin lankidetzara, sare sozialetan agerpena eta bideo baten grabaketa izango dira ekimen nagusiak.

Bizkaiko Txakolinari tratu profesional hoberena eskaintzen dioten Bizkaiko taberna eta jatetxeei zuzenduta dauden Laboral Kutxa Sariak dira, baita ere, tresna egokia gure ardoa profesionalen artean sustatzeko

Urtero bezala, Txakolin Eguna izango da egutegiko ekimenik garrantzitsuenak

WEB ORRIALDE BERRIA

Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deituraren eraberritze prozesuaren barruan, bere web orrialdearen aldaketa dago. Lehengo .org domeinutik oraingo .eus domeinura aldatu da orria.

www.bizkaikotxakolina.eus berriak bere irudia aldatu du. Deiturako upeltegi guztiei buruzko informazio zehatza, beraien estekak eta argazki gehiagok hornituta dago web berria.

2014 urteko emaitzak ikusi ondoren eta agindutako ekonomiaren hobekuntza orokorra kontuan hartuta, Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deitura 2015 urteari begira baikor azaltzen da.

2014ko uztan hartutako mahatsa kalitate handikoa izan da eta bere kopurua, Bizkaiko Txakolinaren gaur egunko merkatua hornitzeko nahikoa.



HEKTAREAKO ETEKINA, ESPERO ZEN BAINO TXIKIAGOA IZAN DA

Udaberri amaierako eta iraila eta urriko eguraldi onari esker mahatsaren loraketa ezin hobea izan zen, eta gaixotasun gabe heldu zen. Uda freskoa eta euri gutxikoa izan zen, eta hori dela eta, mahats bilketa aurreratu zen.

Lehortea nahiko garrantzitsua izan da ia Bizkaiko eskualde guztietan. Horregatik hektareako etekina espero zena baino txikiagoa izan da, mahatsa kalitate handikoa izanik.

2007, 2008 eta 2009an landatutako 124 hektarea mahasti berri hasi dira aurten mahatsa ematen, baina mahasti berri hauek eman duten mahats kopurua ez da nahikoa izan emaitzak orekatzeko. 2014ko uztako kopurua Jatorrizko Deituraren historiako hirugarrena izan da, gutxigatik 2012 eta 2011koaren azpitik.

1 KOADROA. EKOIZPENAREN EBOLUZIOA (kilo eta litrotan)

| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| Mahatsa | 1.574.352 | 1.806.634 | 1.732.746 | 2.425.729 | 2.471.098 | 1.515.782 | 2.323.190 |
| Txakolina | 1.073.525 | 1.240.118 | 1.170.378 | 1.642.907 | 1.660.814 | 999.428 | 1.569.634 |

Upeltegiek 6.330 litro berantiar motako ardoa egin dutela adierazi dute

Kopuru honetan ez da sartzen Foru Aldundiko Upeltegi Experimentalak

LANDUTAKO HEKTAREA KOPURUAK IGOTZEN JARRAITZEN DU

Mahasti hektarea kopuruak gorantz segitzen du baina jabe kopurua beherantz doa

Gaur egun mahastizain kopurua 215koa da, eta hektarea landuak 384

2 KOADROA. MAHASTI LURRALDEAREN EBOLUZIOA ETA EUREN JABEAREN KOPURUA

| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|------------------|------|------|------|------|------|------|------|
| Hektareak | 275 | 338 | 342 | 358 | 371 | 373 | 384 |
| Jabeak | 288 | 285 | 235 | 238 | 223 | 223 | 215 |

UPELTEGI KOPURUAK BERANTZA EGIN DU ZERBAIT

Gaur egun 46 upeltegi daude Bizkaiko Txakolinaren Jatorrizko Deituran. Kopuruak gutxika bada era beherantz segitzen du batez ere upeltegi txikiak ixten ari direlako, belaunaldi arteko errelebo falta eta bideragarritasun ezagatik.

3 KOADROA. UPELTEGI KOPURUA EKOIZPEN KOPURUAREN ARABERA (litroetan)

| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|----------------|-----------|-----------|-----------|------------|------------|------------|-----------|
| >20.000 | 10 | 15 | 14 | 17 | 19 | 16 | 19 |
| 20.000-10.000 | 11 | 8 | 9 | 15 | 10 | 4 | 7 |
| 10.000-5.000 | 16 | 12 | 12 | 4 | 3 | 7 | 5 |
| <5.000 | 18 | 20 | 16 | 14 | 17 | 17 | 13 |
| Deklaratu gabe | 11 | 10 | | | 2 | 4 | 2 |
| Guztira | 66 | 65 | 53 | 50* | 50* | 49* | 46 |

*Foru Aldundiko Upeltegi Esperimentala barne

TXAKOLIN ZURIA DA BIZKAIAN GEHIENGOA

Txakolin zuriak Jatorrizko Deituraren ekoizpen nagusia jarraitzen du izaten, baina 2014 urtean txakolin gorriak eta beltzak aurrerapausoa eman dute. Aurten upeltegi batek berriz ere aparduna ekoiztu du

Uzta berantiarreko ardoaren ekoizpen kopuruak ere igo egin du

4 KOADROA. BIZKAIKO TXAKOLINAREN EKOIZPEN MOTAK (hektolitroetan)

| | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|-----------------------|--------|--------|-----------|-----------|----------|-----------|
| ZURIA | 12.182 | 11.464 | 16.061,86 | 16.405,39 | 9.912,15 | 15.489,03 |
| Gutzizkoaren % | 98,23 | 97,95 | 97,77 | 98,77 | 98,88 | 98,22 |
| GORRIA | 100,34 | 69,51 | 159,86 | 37,62 | 22,38 | 119,07 |
| Gutzizkoaren % | 0,81 | 0,6 | 0,97 | 0,23 | 0,22 | 0,76 |
| BELTZA | 81,75 | 115,75 | 138,39 | 110,28 | 59,75 | 88,24 |
| Gutzizkoaren % | 0,66 | 0,99 | 0,84 | 0,67 | 0,6 | 0,56 |
| APARDUN | 5 | 16 | 13 | 12 | 0 | 10 |
| Gutzizkoaren % | 0,04 | 0,13 | 0,08 | 0,07 | 0 | 0,06 |
| U.BERANTIARRA | 32,24 | 38,6 | 55,96 | 42,85 | 30,81 | 63,30 |
| Gutzizkoaren % | 0,26 | 0,33 | 0,34 | 0,26 | 0,3 | 0,4 |

MERKATURATZEAK BERDIN SEGITZEN DU

BIZKAIKO TXAKOLINAREN merkaturatzeak barne merkaturan jarraitzen du batez ere, ohiko kopuruan mantenduz 2012, bai txakolin zuria, beltza eta gorria ere.

Esportazioak era berdinean jarraitzen dute, baina barne merkaturako zenbakiekin konparatuta, askoz era motelago

5 KOADROA. BARNE MERKATURATZEAREN BILAKAERA ETA ESPORTAZIOAREN DATU OROKORRA. (Hektolitrotan)

| | 2008-09* | 2009-10* | 2010-11* | 2011-12* | 2012-13* | 2013-14* |
|---------------|----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| ZURIA | 8.851,6 | 10.373,98 | 11.636,33 | 12.513,47 | 14.050 | 12.931,82 |
| GORRIA | 96,9 | 100,59 | 10,77 | 71,65 | 57,22 | 63,29 |
| BELTZA | 53,8 | 57,13 | 31,41 | 51,01 | 64,61 | 47,93 |
| APARDUNA | 0 | 2 | 7 | 0 | 1 | 6,42 |
| BARNE OROTARA | 9.002,3 | 10.533,7 | 11.685,51 | 12.636,13 | 14.171,83 | 13.062,24 |
| KANPO OROTARA | 354,6 | 369,48 | 483,98 | 352,75 | 469,79 | 409,71 |

*Mahasti-zaintza kanpainak urte bateko abuztuaren 1etik, hurrengo uztailearen 31ra irauten du

AMERIKETAKO ESTATU BATUAK BIZKAIKO TXAKOLINAREN KANPO MERKATUKO LIDERTZAN DIRA

Ameriketako Estatu Batuak BIZKAIKOK TXAKOLINAREN kanpo merkatu nagusia izaten jarraitzen dute beste herrialde guztien gainetik . Bestalde hiru motatako txakolina (zuria, gorria eta beltza) erosten duen bakarra da.

Amerikar eta asiarrak merkatuak jarraitzen dute BIZKAIKO TXAKOLINAREN bezero hoberenak izaten.


6 KOADROA. HAMAR HERRIALDE INPORTATZAILE GARRANTZITUENAK. (Hektolitrotan)

| | MOTA | 2010-11 | 2011-12 | 2012-13 | 2013-14 |
|-----------|----------------|--------------|---------------|---------------|---------------|
| AEB | ZURIA | 297,85 | 200,69 | 322,47 | 219,16 |
| | GORRIA | 49,5 | 0 | 29,16 | 0 |
| | BELTZA | 16,20 | 15,12 | 0 | 22,95 |
| | GUZTIRA | 364 | 215,81 | 351,63 | 242,11 |
| MEXIKO | ZURIA | 2,7 | 2,03 | 14,40 | 7,20 |
| KANADA | ZURIA | 16,2 | 5,04 | 9,45 | 11,25 |
| TXINA | ZURIA | 0 | 7,79 | 0 | 4,50 |
| JAPONIA | ZURIA | 7,2 | 11,52 | 27,18 | 27,90 |
| | GORRIA | 0 | 0 | 4,32 | 0 |
| | GUZTIRA | 7,2 | 11,52 | 31,5 | 27,90 |
| AUSTRALIA | ZURIA | 10,2 | 0 | 0 | 0 |
| FRANTZIA | ZURIA | 21,15 | 33,44 | 6,90 | 0,90 |
| | BELTZA | 0 | 0 | 0,18 | 0,27 |
| | GUZTIRA | 21,15 | 33,44 | 7,08 | 1,17 |
| ALEMANIA | ZURIA | 1,98 | 12,15 | 7,33 | 5,40 |
| HOLANDA | ZURIA | 0,93 | 14 | 9,25 | 9,35 |
| BELGIKA | ZURIA | 4 | 0 | 3,71 | 15,68 |
| | BELTZA | 1,4 | 0 | 0 | 0 |
| | GUZTIRA | 5,4 | 0 | 3,71 | 15,68 |

PRODUKZIOAN DAUDEN HEKTAREEN KOPURUA GORANTZA DOA

Jatorrizko Deituraren sorreran, orain dela 21 urte, 50 hektarea mahasti gutxi gorabehera erroldatu ziren. Gaur egun mahastietarako lurraldeen kopurua zazpi aldiz biderkatu da eta 384 hektareakoa da iaz baino 11 gehiago izanik.


1 GRAFIKOA. PRODUKZIOAN DAUDEN HEKTAREAK



MAHASTIZAINEN KOPURUAK BEHERANTZ EGIN DU

Mahastizainen kopuruak berdintsu jarraitzen du, baina aurtengo ekitaldian beherantz egin du pixka bat bada ere. Jabearen heriotza edo lanak bertan behera usteak izan dira arrazoi nagusiak. Gaur egun 215 mahastizain daude Jatorrizko Deituran, jiaz baino 8 gutxiago


2 GRAFIKOA. MAHASTIZAINAK



UPELTEGI KOPURUAK BERDIN SAMAR SEGITZEN DU, BAINA BEHERANTZ DOA

Upeltegien kopuruak eboluzionatu du. Jatorrizko Deituraren lehen hamar urteetan asko hasi zen, 30etik 70 baino gehiagora pasatuz. Baina bigarren hamarkadan kopuru hau jaisten joan da 50 upeltegietan egonkortu arte azken urteotan. Fenomeno hau bilakaera natural baten ondorioa besterik ez da. Upeltegi txikiak bat-egite prozesu batean sartu dira, upeltegi handiagoak sortuz bai euren ekoizpena igo eta hobetzeko baita merkatuan indartsuagoak izateko ere. Azken ekitaldian bi upeltegi atera dira Deituratik eta beste bik ez dute txakolinik egin


3 GRAFIKOA. UPELTEGIAK



DEITURAKO HISTORIAKO HIRUGARREN EKITALDIRIK HOBERENA

2013ko kanpainan Jatorrizko Deituraren historian zehar ezagutu den jaitsiera handiena gertatuta gero, aurtengoan 2011 eta 2012ko zenbakietara bueltatu da ekoiztutako txakolinaren kopurua. Aurtengo ekoizpena Deituraren historiako hirugarren handiena izan da.

4 GRAFIKOA. EKOIZTUTAKO TXAKOLINA



TXAKOLIN SARITU ETA GORAIPTUAK



BIZKAIKO TXAKOLINA Jatorrizko Deiturak bere barne dauden txakolingileak ekoiztutako ardoaren benetakotasuna zaintzen du, bere izenpean etiketatutako Txakolinak bere kalitate baldintza zorrotzak betetzen dituela ekoizpen prozesu guztietan, mahastitik, beti 400 metrotik beherako lurraldeetan, botilatzeraino bermatuz

Arreta honi esker Bizkaiko Txakolinak lortu du kalitate handiko ardo baten aitortpena. Historian zehar asko eta asko izan dira Bizkaiko Txakolin saritu eta goraipatuak hainbat lehiaketetan, lokal mailan nahiz munduan zehar.

7.KOADROA. 2014an SARITUTAKO TXAKOLINAK

| MARKA | UPELTEGIA | SARIA |
|-------------------------|----------------------------|--|
| BITXIA | Talleri Txakolina | Baco Sariak Urrezko Domina |
| ADOS BASARTE | Basarte Upeategia | Decanter World Wide Awards Brontzezko Domina |
| G22 (2011) | Iturrialde Upeategia | International Wine Challenge Brontzezko Domina |
| GORKA IZAGIRRE (2013) | Iturrialde Upeategia | International Wine Challenge Brontzezko Domina |
| GORKA IZAGIRRE (2013) | Iturrialde Upeategia | Sommelier Wine Awards Brontzezko Domina |
| MAGALARTE (2013) | Magalarte Lezama Upeategia | Bruselako Mundu Sariketa Urrezko Domina |
| MAGALARTE (B.I.) (2012) | Magalarte Lezama Upeategia | Bacchus Sariak Zidarrezko Domina |
| ITSASMENDI 7 (2012) | Itsasmendi Upeategia | Bacchus Sariak Urrezko Domina |
| ITSASMENDI 7 (2012) | Itsasmendi Upeategia | Bruselako Mundu Sariketa Urrezko Domina |
| ARTIZAR (2011) | Itsasmendi Upeategia | Bruselako Mundu Sariketa Zidarrezko Domina |
| ARIMA | Iturrialde Upeategia | Wines from Spain Estatuko ardo goxo hoberena |